

Aldudarrak eta Erratzuarrak

Herri kiroletan eta batez ere pilota jokoan, zaharrenetako hain segur LAXOA dugu. Baztan-eskualdean josteta nagusia eta arrakasta haundikoa. Noiztik datorren «Laxoa» ziur eztagiku baina aspaldiko dela bai.

Baztan alde huntan eta mendi zelaian non-nahi aurkitzen ditugu «pilota soro» deitzen diren zelai-guneak, artsainak soro hoietan pilotan aritzen zirenak. Desafiozko partidak ere jokatu izan dira joan zen mendean eta bai mende hunen has-tapenean ere, aldudarrak eta baztandarren artean ontzako urreak ere jokoan zabiltzela. Baztan-Erreka pilotarien artean ere zer nolako gudukaldiak egiten ote zituzten. Garai hartan ez zen txapelketarik izaten, orduan ez zen horrelako gauzarik, Txapelketa lehiaketa berria dugu, orai-ko antolakuntza berria. Erran dezagun ere, desafiozko partida hoiek mugiarazten zutela jendea, beti izaten baitziren pilotari hoberen arteko gudukaldiak. Pilotari onen arteko guduak partida onak izanen ziren hainsegur, baina pilotari xumeen artekoak ere ez ziren txarrak eta baziren desafiozkoak eta aski interesgarriak. Adiskide batek erranik aipa dezadan aspaldiko

denboretako gertakizun bat.

Erratzuko Gorostapolo hau-zoko plazan bazuten desafiozko partida bat antolatua, erratzuarrak aldudarren kontra. Aldudar pilotariak etorri ziren Gorostapolora eta hantxe erratzuarrak ere heken zain. Jendea ere bildu caen zen. Partida jokatu aitzin aldudarrak nahi omen zuten lehenik joaldi batzuk egin plaza ezagutzeko. Hasi omen ziren sakeak eta erreferak egiten eta holaxe joaldi batzuk osatu zituzten.

Erratzuko pilotariak ikusi zutenean aldudarren jokatzeko moldeak eta heken joaldi biziak, izitu ziren eta ez zuten partidik jokatu nahi, aisa galduko zutela eta desafioa urratu zuten. Ezta-baida franko izan omen zituzten sekulako kalapitan eta aserre, baina dudarik gabe lehenagotik ezpaitzuten seinalerik bota, beti ere desafiozko partida desegin zen. Aldudarrak kolera gorrian itzuli ziren beren herrira eta bidean zoatzilarik, aurkitu zituzten iretze meta guziak errekan beiti bota omen zituzten eta holaxe akitu ziren egun hartako espantu guziak.

Gertakari bitxiak lehenagoko historio zaharrak.

M. Izeta



Berri ona

Jesus Jerusalem bidean

«Jarrai Neri» (Lk 9, 59-62)

IKASTAROA amaituta, eta oporrak urbil! Jendea laister aisiko da alde batetik bestera ibiltari. Bada gaur egun uda-lekuak aukeratzeko deia ugari. Onik eta ederrik nai baduzu, zatoz onera, zoaz ara! Txango bereziak, apartekoak! Eta bitartean, Jesusen deia: «Jarrai Neri».

Ona emen gure oporrak eta gure eguneroko lanak argi ditzakeen deia. Ez daukagu oporrak utzi bearrik; ez daukagu gure lanbideari muzin egin bearrik, baizik-eta Kristoren Pazko-argiz argitu bear dugu gure bizitza osoa. Giro onetan irakurri dezakegu gaurko Ebanjelioa.

Galilea utzi eta Jerusalem bidea artzen du Jesus (51). Lukasek garrantzi handia ematen du Jesusen ibilaldi oni: Jesus kementsu doa Jerusalem, gizadiaren alde bere bizi ematera: «Jerusalem bidea artu zuen adore aundiz» (51). Bide onek Jainko Aitarengana darama Jesus: Pazko-bidea da, askatasun-bidea. Ibilaldi au, piztueran edo zeruratze-eguneari amaituko da, Aitak Jesus bere aintzara artzen duenean (51). Orretarako, gurutzea jasan bear du leenik (Lk 12,50). Jesusen deia: «Jarrai Neri» ondo ulertu aal izateko, gaurko Ebanjelioaren leenengo zati au gogoan artu bear da.


Berak ibilli eta bizi izan duen bide orretara deitzen gaitu Jesus. Lukasek egoki esaten digu au: Jesus ez doa bakarrik Jerusalem bidean, eta bidean doala, bere jarraitzealeak eskolatzen ditu:

- apostoluek gogorkeria dute oraindik biotzean (54). Ez dute oraindik ulertu, Jesusen Jainkoaren errukia dakarrela mundura (Lk 15), eta ez benedekua. Jesusen bere bidera, kojaerara, deitzen gaitu gaur ere.

- mundu onetako segurantziei uko egin bear die Jesusen jarraitzealeak. Emen ere Pazko-bidera deitzen gaitu Jesus (57-62): gurutze-bidetik aintzara. Ez daukagu mundu onetako gauzei eta zaletasunei itsatsita bizitzetik. Jesusen Pazko-bideari eman bear diogi leen-tokia. Biotzeko askatasuna bear da orretarako.

Jainko gure Aita, bataioan artutako graziari erantzunez, zure Semearen deia jaso nai genuke gaur. Emaiguzu Espiritu Santuaren indarra Jesusen Pazko-bidean aurrera egiteko gai izan gaitzen.

A. Apaolaza



Nafar-Izkuntza orriaren berriak

Aurtengo Ekainaren 4'an, bazkari eman genien Diario de Navarra delako egunkarian, euskaraz idazten duten guztiei. Idazleen batzarra ta bazkaria euskaraz izan zen.

Kafea artzera zuzendaria ta bere ordezkaria deitu genuen, baita etorri ere zintzo zintzo. Zuzendariarekin elkarizketa erderaz egin genuen. Lendabizi aurkeztu nizekion etorritako idazleen izenak banaka. Ara zerrenda osoa:

Bat: Mariano Izeta. Azkeneko ogeitamar urte auetan ia astero Baztan'go berriak ematen dizkigu. Oso idazle langillea dugu. Urrezko domina eman bearko lioke Nafarroa'ko jaurlaritzak idazle on bezela egiten duen lanagatik.

Bi: Bizente Latiegi, gaurkotatuna daukaten gaien idazlea. Zerenai erran dezake ta beti zutik eroritzen da. Bai trebea gizona. Sendiaren erroak aitaren aldetik Bete-lu'n dauzka.

Iru: Latxaga, Naparroa'ko eus-

kal arrobiak agertzen dizkigu. Naparroako gaietaz mintzo da ugari.

Lau: Dr. Bereziartua. Gizon onek ba du gai berexia, osasuna ta janariak.

Bortz: Joxe Inazio Salaberria, baserri batean morroi dagona ta olerkaria. Bere gai berexia etekiña duten baserriagaz mintzo.

Sei: Joxe Mari Arzallus, pasiotarra. Nafarroa'n apaiz gazteak askok euskal mezak irakurtzen dituzte ta ez dakite itzaldi bat euskeraz egiten. Elisa askotan apezak Diario de Navarra'k dakarren: Berri Onaren itzaldia irakurtzen dute.

Orregatik zuzendariari garaiz argitaratu bearko lituzketela itzaldi oiek erran zitzaion.

Zazpi: Xole Erbiti, azkeneko ogeitamar urte auetan Diputazioan euskeraren larrañan lana egiten duna. Asko dakin emakumea da.

Zortzi: Jean Batiste

Etcharren, Garazi'ko semea, gaur Auritz'en bizi dena. Baxanabarra-ekin lokarriak agertu bearko luke-nak.

Bederatzi: Joxe Mari Murua, Banko kontuetan iaioa. Sakanan dauzka sendiaren sustraiak.

Amar: Xabier Olló Garde, Iruñeseko, gazte argia, gaurko gaietaz jakia.

Eskari bat egin zitizion Diario de Navarra'ko zuzendariari. Orain dela ogeitabortz urte egiten ziran lanak euskeraz erakutxi zitzaizkion, baita ere eskatu lan berdintsua euskeraz egiteko baimena. Orrekin euskal kulturak asko irabaziko luke Nafarroa'n. Egun orren eraikia auxa izan zen: astero orri alde bat euskeraz egina beti bezala ta gainera baiezkota eman zigun zuzendariak urtero sei orrialdeko idazlan batekoa egiteko Lansaria etxekoa izango litzake lau aldiz aundiagoa.

Latxaga

Indarkerizaleekin alkarrizketarik bai? Alkarrizketarik ez?

Ez nuen gaur, Orrillak 10, gai ontaz itzegiteko asmorik, bañan indarkeri odolazaleaz itzein bait du Aitasantuak... eta Aitasantuak esana gaizki eman bait du Espai ko irrati batek... gaizki esandako ori zuzendu bearra nuela uste izen dut. Ona gaizki esandako orren muiña: «Aitasantuak, itzaldi batean, ETA gaitzetsi du, ta ETA rekin alkarrizketan astea debekatu du». Goizean bizarra kentzen ari nintzela entzun dut ori. Astakeri aundi bat iruditu zaitelako jaramonik ez diot egin-da, ez naiz konturatu ere zer irrati entzuten ari nintzen: «Kope»? «Radio Nacional?... Esan duena beintzet gezurra aundia da; okerrago oraindik: erdi-egia.

Aitasantuak itzaldi artan ez zuen ETA rik aipatu. Askoz gutxiago ETA rekingo alkarrizketarik gaitzetsi. Aitasantuak, eskari bikoitz bat egin zuen: espainiar guztiei, pakea billatzen saiatzeko beste eskari bat terroristei: espainiarrei, pakea billatzen saiatzeko; terroristei odol-isurtzez gelditzeko. Eta ezer ez geiago. Aitasantua terrorismoa gaitzestez leporaiño dago.

Eta ni ere bai.

Orregatik ez naiz emen berriro ETA gaitzesten asiko. Milla aldiz egin dut ori; eta beste iñor askok beñio gogorrako. Pakea billatzeko alkarrizketaren egokitasunaz edo ez-egokitasunaz nai nuke, joan den astean esandakoari, zerbait erantsi. Irlanda n eta Israel en ez direla terroristak izen, esan nuen, pakeako lenen urratsa ematen aurrenekoak: Alderantziz, bi Laterri oietako Jaurlaritzak baizik.

Euskalerriko eta Ipar-Irlanda ko (edo Palestina ko) terrorismoa berdiñak ez direla, esan oi dute alkarrizketaren etsaiek. Egia. Munduan bi gauza berdi ik ez bait da. Oso antzekoak, ia-ia berdiñak, izen daitezke, beñio zearo berdiñak, ez. Ta... orra ba: Gauzak alkarrekin berdiñak izan daitezkeen neurri osoan dira berdiñak angota emen-eko terrosismoak: Iruak bait dire abertzalekeriaren ondorio: Inglan-derriar,

Irlandar, Arabiar eta Juduar nazionalismokerien ondorio Palestina n eta Ipar-Irlanda n. Emen, espainizaleen eta eusko-

tarren abertzalekeriak dire borrokan dabilzenak.

Angoak eta emengoak, denak terroristak? Nor gaitzetoak? Nork jakin!

Baña Irlanda n eta Palestina n emen beñio askoz eta askoz odol geiago

isuri da. An eta emen, Jaur-laritzek, al izen duten guztia erabili dute ertzaintza terrorismoaren aurka.

Ango bi jaur-laritzek ikusi dute azkenean, ertzaintzaren bide utsetik sekulan pakera ez direla iritxiko. Españi koak baietz uste du. Bañan Españi ko erriak pakea nai du len-bait-len, eta ertzaintza erabiltzeaz

ga era beste zerbait egin bearra dela, uste du. «El gobierno no puede ceder» diote alkarrizketaren etsaiek. Baña alkarrizketan astea ez da amore ematea; borrokatik garai-lle irtetzeaz aztuta, pakearen billa saiatzea baizik. Eta pakea da erriak nai duena. Eta baita Aitasantuak nai duena ere.

Latiegi tar Bixente